*Seigarren artikulua.–* Dena dela, HABEren Ikuskatzailetza Sailak ez du onartuko Euskaltegien Erregistroan idatzi gabeko irakasle-laguntzaile berriren inolako sarrerarik, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian indarrean jarri egunetik aurrera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Baliogabe uzten da, ondorio guztietarako, HABEren Zuzendaritza-Batzordearen 1984.eko azaroaren 26ko Ebazpena (E.H.A.A. 203 zenb., 1984.eko abenduak 1).

BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

Ebazpen honetako boskarren artikuluan xedatutakoa ez da 1990.eko irailera arte indarrean jarriko gaurregun Laudioko Udal-Euskaltegi dihardute̲n monitoreei dagokienean, bertako Udalaren eta HABEren Zuzendaritza honen artean salbuespen gisa sinatutako akordioari jarraiki.

Gasteiz, 1987.eko abenduak 17.

HABEren Lehendakariak,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

*Artículo sexto.–* En ningún caso la Inspección de HABE permitirá la incorporación de nuevos monitores auxiliares que no estén inscritos en el Registro de Euskaltegis a la fecha de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICION ADICIONAL

Queda derogada, a todos los efectos, la Resolución del Patronato Rector de HABE de 26 de Noviembre de 1984 (B.O.P.V. nº 203 de 1º de Diciembre de 1984).

DISPOSICION TRANSITORIA

Lo dispuesto en el artículo quinto de esta Resolución no será de aplicación hasta septiembre de 1990 a los monitores actualmente existentes en el Euskaltegi Municipal de Laudio, conforme a Convenio suscrito entre el Ayuntamiento de Laudio y la Dirección General de HABE, con carácter de excepcionalidad.

Gasteiz, a 17 de Diciembre de 1987.

El Presidente de HABE,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

## LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA-SAILA

**26**

393/1987 DEKRETUA, Lan eta Gizartesegurantza Sailaren Abenduaren 15ekoa, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren osakerari eta ihardutze-erregimenari buruzkoa.

Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren osakerari eta ihardutze-erregimenari buruzko Maiatzaren 9ko 93/1983 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Maiatzaren 20ko 6/1982 Legea garatzen du, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluari dagokionean alegia (19, 20 eta 21 artikuluak).

Formalki osatu geroztik Kontseilu horren ihardueran izandako esperientziak, aholkugarri egiten du osakeran eta ihardutze-erregimenean aldaketak egitea, bere egitekoa operatiboagoa eta eraginkorragoa bilakatzeko.

Hori horrela, Lan eta Gizartesegurantza Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritza Batzordeak 1987.eko Abenduaren 15ean egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, zera

XEDATZEN DUT:

*1. Artikulua.–* Lan eta Gizartesegurantza Saileko Gizartesegurantza eta Lan Harremanetarako Sailordetzaren menpe dagoen Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluak Gasteizen du bere egoitza eta honako organu hauez osatua dago:

a) Osoko Bilkura.

b) Batzorde Iraunkorra.

c) Teknika-Batzorde espezializatuak.

*2. Artikulua.–* Honako hauek osatzen dute Kontseiluaren Osoko Bilkura:

A. Administrazio Publikoaren aldetik.

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

**26**

DECRETO 393/1987, de 15 de Diciembre, sobre composición y régimen de funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social.

El Decreto 93/1983, de 9 de Mayo, sobre composición, régimen y funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social, desarrolla la Ley 6/1982, de 20 de Mayo, sobre Servicios Sociales, en lo que hace referencia al Consejo Vasco de Bienestar Social (artículos 19, 20 y 21).

La experiencia acumulada en el funcionamiento del citado Consejo desde su constitución formal, aconseja introducir algunos cambios, tanto en la composición como en el régimen de funcionamiento, a fin de hacer su labor más operativa y eficaz.

En su virtud, a propuesta del Consejero Titular del Departamento de Trabajo y Seguridad Social y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 15 de Diciembre de 1.987

DISPONGO:

*Artículo 1.–* El Consejo Vasco de Bienestar Social, dependiente de la Viceconsejería de Seguridad Social y Relaciones Laborales del Departamento de Trabajo y Seguridad Social, tiene su sede en Vitoria-Gasteiz y funciona a través de los siguientes órganos:

a) El Pleno.

b) La Comisión Permanente.

c) Comisiones técnicas especializadas.

*Artículo 2.–* El Pleno del Consejo está constituido:

A. Por parte de la Administración Pública.

a) Lan eta Gizartesegurantza Saileko Gizarte Ongizateko Zuzendaria, Lehendakaria izango dela.

b) Bokal bat, Lan eta Gizatesegurantza Sailaren ordezkotza eginez, Lehendakariordea izango dela.

c) Bi bokal, Lan eta Gizartesegurantza Sailaren ordezkotza eginez.

d) Hiru bokal, Osasunketa eta Kontsumo Sailaren ordezkotza eginez.

e) Bokal bat, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkotza eginez.

f) Bokal bat, Kultura eta Turismo Sailaren ordezkotza eginez.

g) Bokal bat, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren ordezkotza eginez.

h) Hiru bokal, Lurralde Historikoetako Foru Diputazio bakoitzeko ordezkotza eginez.

i) Hiru bokal, Autonomia Elkarteko Udalen ordezkotza eginez.

B. Baliatzaileen eta profesionalen antolakundeen aldetik.

a) Euskal Herriko Jubilatu eta Zaharsarituen Lurraldeko Federazioaren ordezkari bat.

b) Subnormalen aldeko Elkarteen Euskal Federazioko ordezkari bat.

c) Autonomia Elkarteko Elbarrituen Koordinakundeetako ordezkari bat.

d) Euskadiko Bezeroen Elkarteko ordezkari bat.

e) Autonomia Elkarteko Gizarte-Lanean Diplomadunen eta Gizarte-Sorozlarien Kolegio Ofizialetako hiru ordezkari, bat Lurralde Historiko bakoitzeko.

f) Hiru Lurralde Historikoetako Hezitzaile Espezializatuen Elkarteetako ordezkari bat.

g) Sorozlaritza-lanetan eta gizarteak baztertutako pertsonen eta kolektiboen gizarte-zerbitzuen suztatze eta kudeatze-lanetan jarduten duten erakundeetako bi ordezkari, Lan eta Gizartesegurantza Sailburuak izendatuko dituela.

h) Sei bokal, bi Lurralde Historiko bakoitzeko, dagozkien Gizarte-Ongizateko Lurraldeko Kontseiluek aukeratuta euren kideen artetik.

Kontseiluko bokaletariko bat izango da Idazkaria, Kontseiluburuak izendatuta.

*3. Artikulua.–* Honako era honetan izendatuko dira bokalak:

a) Jaurlaritzako Sailetako bokal ordezkariak, dagozkien Sailburuek izendatuko dituzte.

b) Foru Diputazioetako bokal ordezkariak, dagozkien Gorporazioen ihardutze-arauekin bat etorriz izendatuko dira.

c) Udalen bokal-ordezkariak, entitate horiei Gizarte--Ongizateko Lurralde Kontseiluetan dagozkien kideek izendatuko dituzte, bat Lurralde Historiko bakoitzeko, aipatutako ordezkaritza horretako kide bat izango dela izendatua.

d) Gizarte-Ongizateko Lurralde Kontseiluetako sei bokalak, horiei dagozkien Kontseiluek aukeratuko dituz-

a) Director de Bienestar Social del Departamento de Trabajo y Seguridad Social, que actuará de Presidente.

b) Un vocal, en representación del Departamento de Trabajo y Seguridad Social, que actuará de Vicepresidente.

c) Dos vocales, en representación del Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

d) Tres vocales, en representación del Departamento de Sanidad y Consumo.

e) Un vocal, en representación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

f) Un vocal, en representación del Departamento de Cultura y Turismo.

g) Un vocal, en representación del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.

h) Tres vocales en representación de cada una de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos.

i) Tres vocales en representación de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma.

B. Por parte de las organizaciones de usuarios y profesionales.

a) Un representante de la Federación Territorial de Jubilados y Pensionistas del País Vasco.

b) Un representante de la Federación Vasca de Asociaciones Prosubnormales.

c) Un representante de las Coordinadoras de Disminuidos Físicos de la Comunidad Autónoma.

d) Un representante de la Federación de Consumidores de Euskadi.

e) Tres representantes de los Colegios Oficiales de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de la Comunidad Autónoma, uno por cada Territorio Histórico.

f) Un representante de las Asociaciones de Educadores Especializados de los tres Territorios Históricos.

g) Dos representantes de caracterizadas instituciones dedicadas a la asistencia y a la promoción y gestión de servicios sociales de personas y colectivos socialmente marginados, a designar por el Consejero de Trabajo y Seguridad Social.

h) Seis vocales, dos por cada Territorio Histórico, designados de entre sus miembros por los respectivos Consejos Territoriales de Bienestar Social.

Uno de los vocales del Consejo actuará de Secretario por designación del Presidente.

*Artículo 3.–* La designación de los vocales se hará de la siguiente manera:

a) Los vocales representantes de Departamentos del Gobierno, serán designados por los respectivos Consejeros titulares.

b) Los vocales representantes de las Diputaciones Forales serán designados de acuerdo con las normas de funcionamiento de sus respectivas Corporaciones.

c) Los vocales representantes de los Ayuntamientos serán designados por los miembros correspondientes a dichas entidades en los Consejos Territoriales de Bienestar Social a razón de uno por cada Territorio Histórico, debiendo recaer la designación en un miembro de la citada representación.

d) Los seis vocales de los Consejos Territoriales de Bienestar Social serán elegidos por sus respectivos

te. Aukeratuak, dena dela, bezeroen eta profesionalen antolakundeetako ordezkariak izango dira.

*4. Artikulua.*– 2. Artikuluko A idazatiak aipatzen dituen bokalen karguaren iraupena, horiek ordezkatzen dituzten erakundeetan izandako agintaldiena bera izango da.

Artikulu bereko B idazatiak aipatzen dituen bokalen karguaren iraupena hiru urtekoa izango da, agintaldia amaitu ondoren birraukeratuak zein eurek izendatu dituzteneko erakundeek amaitu baino lehen aldatuak izan daitezkeela, Gizarte-Ongizateko Euskal Kontseiluak horren berri izanez gero.

*5. Artikulua.*– Honako hauek dira Gizarte-Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko-Bilkuraren egitekoak:

a) Gizarte-zerbitzuen plangintzari buruzko proposamenak egitea Jaurlaritzari.

b) Gizarte-zerbitzuen alorreko aurrekontu-proiektua gertatzean hartu beharreko erizpideak proposatzea Jaurlaritzari.

c) Gizarte-zerbitzuen kudeaketaren berri izatea eta horiek aztertzea.

d) Aholkuak ematea eta Gizarte-Ongizateko Lurralde Kontseiluen egitekoen koordinaketa.

e) Diktamenak, txostenak eta azterlanak gertatzea, bai bere kabuz baita Legebiltzarrak edo Jaurlaritzak hala eskatuta ere.

f) Legeek edo Araudiek gainera diezazkion gainontzekoak.

*6. Artikulua.*– Batzorde Iraunkorraren osakera honelakoa da:

a) Kontseiluburua, Batzorde Iraunkorrekoa ere izango dela.

b) Kontseiluburuordea, Burua ez egotea gertatuz gero, Batzorde Iraunkorreko Buruaren egitekoak beteko dituela.

c) Osasunketa eta Kontsumo Sailaren ordezkotzako kide den bokal bat.

d) Diputazioetako ordezkari den bokal bat, bertoko bokal-ordezkariek aukeratua.

e) Udaletako bokal-ordezkari bat, bertoko bokal-ordezkariek aukeratua.

f) Bezero eta profesionalen antolakundeetako bost bokal-ordezkari, horien ordezkotza duten kideek aukeratuak.

*7. Artikulua.*– Batzorde Iraunkorrak delegatutako izaera izango du, eta ondorioz, bere egitekoak eta ihardutze-erregimena Kontseiluaren Araudian erregulatuko dira.

*8. Artikulua.*– Espezializatutako teknika-Batzordeen eraketa, osakera, helburuak eta ihardutze-arauak Kontseiluko Plenuaren agintepidea dira. Iraunkorki edo aldian-aldirako osa daitezke horiek.

*9. Artikulua.*– Kontseiluko Osoko Bilkurari dagokio bere ihardutze-Araudia gertatzea eta aldatzea, Lan eta Gizarteseguruntzako Sailburuak onartu beharko duela.

*10. Artikulua.*– 1.– Kontseiluko Plenua sehilabeterik behin bilduko da gutxienez, edo Buruak bere kabuz

Consejos. La elección deberá recaer, en todo caso, sobre los representantes de las organizaciones de usuarios y profesionales.

*Artículo 4.*– La duración del cargo de los vocales a que se refiere el apartado A del artículo 2 será la misma que la de sus respectivos períodos de mandato en las instituciones que representan.

La duración del cargo de los vocales a que se refiere el apartado B del mismo artículo será de tres años, puediendo ser tanto reelegidos al término de su mandato como sustituidos antes de finalizarlo por las instituciones que les hubieran designado, previo conocimiento del Consejo Vasco de Bienestar Social.

*Artículo 5.*– Son funciones del Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social las siguientes:

a) Formular propuestas al Gobierno sobre la planificación de los servicios sociales.

b) Proponer al Gobierno criterios a adoptar en la colaboración del proyecto de presupuesto en materia de servicios sociales.

c) Conocer y analizar la gestión de los servicios sociales.

d) Asesorar y coordinar las funciones de los Consejos Territoriales de Bienestar Social.

e) Elaborar dictámenes, informes y estudios, bien por propia iniciativa o a instancias del Parlamento o del Gobierno.

f) Cualesquiera otras que le atribuyan las leyes o los reglamentos.

*Artículo 6.*– La composición de la Comisión Permanente es la siguiente:

a) El presidente del Consejo, que lo será también de la Comisión Permanente.

b) El Vicepresidente del Consejo, que actuará de Presidente de la Comisión Permanente en ausencia del mismo.

c) Un vocal miembro de la representación del Departamento de Sanidad y Consumo.

d) Un vocal representante de las Diputaciones, elegido por los vocales representantes de las mismas.

e) Un vocal representante de los Ayuntamientos, elegido por los vocales representantes de los mismos.

f) Cinco vocales representantes de las organizaciones de usuarios y de profesionales, elegidos por los miembros que representan a las mismas.

*Artículo 7.*– La Comisión Permanente tendrá carácter delegado y, por tanto, sus funciones y régimen de funcionamiento se regularán en el Reglamento del Consejo.

*Artículo 8.*– La creación, composición, fines y normas de funcionamiento de las Comisiones técnicas especializadas son competencia del Pleno del Consejo. Estas podrán ser constituidas de modo permanente o coyuntural.

*Artículo 9.*– Corresponderá al Pleno del Consejo, la elaboración y modificación de su Reglamento de funcionamiento, que deberá ser aprobado por el Consejero Titular del Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

*Artículo 10.* 1.– El Pleno del Consejo se reunirá, cuando menos, una vez cada semestre, así como cuando

horretarako dei egin dezanean edo ihardutze-Araudiak ezarritako zernolakoren bat gerta dadinean.

2. Batzorde Iraunkorra eta espezializatutako teknika-Batzordeak euren Buruak dei egin ondoren bilduko dira, Kontseiluko Araudiak finka ditzan zernolakoetan.

*11. Artikulua.–* Kontseiluak bere ekintzen txostena gertatu eta aurkeztu beharko du urtero Lan eta Gizarteseguranatza Sailaren aurrean.

*12. Artikulua.–* Gizarte-Ongizateko Euskal Kontseiluaren ihardunari buruz Dekretu honek erregulatu gabeko gainontzekoetan, Administrazio Prozedurako Legearen I Idazpuruko II Atalburuan aurrikusitakoa izango da aplikagarria.

*13. Artikulua.–* Kontseiluaren iharduketa-gastuak, Lan eta Gizarteseguranatza Sailaren aurrekontuetan sartuko den partidaren pentzutangoak izango dira.

*14. Artikulua.–* Kontseilukideek, Irailaren 17ko 307/1985 Dekretuan eta indarrean dauden gainontzeko araueetan xedatutakoari jarraiki, Lan eta Gizartesegurantza Sailburuak finka ditzan diru-kopuruak eskura ditzakete, dieta eta kalte-ordain gisa.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak izan daitezen Xedapenak emateko eskuematen zaio Lan eta Gizartesegurantza Sailburu Jn. T. Gorenari.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Maiatzaren 9ko 93/1983 Dekretua indargabetu egiten da.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara dadin egunean sartuko da indarrean.

Gasteiz, 1987.eko Abenduak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lan eta Gizartesegurantza Sailburua,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

lo convoque su Presidente por propia iniciativa o en las circunstancias que fije el Reglamento de funcionamiento.

2.– La Comisión Permanente y las Comisiones técnicas especializadas se reunirán, previa convocatoria de sus respectivos presidentes, en las circunstancias que fije el Reglamento del Consejo.

*Artículo 11.–* El Consejo deberá elaborar y presentar ante el Departamento de Trabajo y Seguridad Social una memoria anual de sus actividades.

*Artículo 12.–* En todo lo no regulado por el presente Decreto sobre el funcionamiento interno del Consejo Vasco de Bienestar Social, será de aplicación lo previsto en el Capítulo II del Título I de la Ley de Procedimiento Administrativo.

*Artículo 13.–* Los gastos de funcionamiento del Consejo serán con cargo a la correspondiente partida que se incluirá en los presupuestos del Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

*Artículo 14.–* Los miembros del Consejo podrán percibir, en concepto de dietas e indemnizaciones, aquellas cantidades que se establezcan por el Consejero de Trabajo y Seguridad Social, de acuerdo, en todo caso, con lo dispuesto por el Decreto 307/1985, de 17 de septiembre y demás normativa vigente.

DISPOSICION ADICIONAL

Se faculta al Excmo. Sr. Consejero Titular del Departamento de Trabajo y Seguridad Social para dictar cuantas Disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Queda derogado el Decreto 93/1983, de 9 de Mayo.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de Diciembre de 1987.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.